



**ERANTZUKIZUNKRIMINALAREN,
EROSKERIA-AURKAKOTASUNAREN ETA
LEHIAREN BABESAREN PRINTZPIO
ZUZENDARIAK**

ALDAKETAK KONTROLATZEA

| BERTSIOA – ATALAK | IRUZKINAK – DATA |
|---|---|
| V.0.-hasierako dokumentua | Indarrean 2018/09tik |
| V.1.-aldaketa txikiakformatuan | 2020-10-22koOCP-ak onartuta |
| V.2.-egokitzea eta eguneratzea arriskuen matrizearenarabera eta eskumenaren eskubidearen arloan | OB-ak prestatua, gainbegiratua eta onartua martxoak 24koaktan 03/2022administrazio-organoan |

AURKIBIDEA

| | | |
|------|---|----|
| 1. | SARRERA | 4 |
| 2. | IRISMENA | 4 |
| 3. | PRINTZIO ARAUTZAILEAK ETA JOKABIDE DEBEKATUAK ARLO PENALEAN ETA EROSKERIARENAURKAKOAN..... | 4 |
| 3.1. | USTELKERIASAIHESTEAREN PRESALEHIAKORRAGOA ETA JASANGARRIAGO IZATEKO, GIZARTEBIDEZKO AGOSORTZENLAGUNTZEKOEZEZIK..... | 4 |
| 3.2. | EZEKOA IRUZURRARIETA ERAKUNDE KRIMINALEI JOKOAREN ARAU GARBIAK ETA ETIKOAKZIURTATZEKO | 5 |
| 3.3. | OGASUN PUBLIKOAREN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN AURKAKO DELITUAK SAIHESTE DIRU-KUTXA PUBLIKOA ETA OINARRIZKO ZERBITZUAK MANTENTZEARI LAGUNTZEKO | 6 |
| 3.4. | TEKNOLOGIA BERRIAK ONGI ERABILTZE, JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA, KONTSUMITZAILEAK ETA GIZABANAKOEN INTIMITATEA ERRESPETATUZ, BERRIKUNTZAREKIN ETA GARAPENAREKIN DUGUN KONPROMISOA NABARMENTZENDUENA | 7 |
| 3.5. | INGURUMENA ETA INGURUA BABESTE, ETA KONTSERBATZE AUKEREZ BETETAKO ETORKIZUNAZIURTATZEKO | 8 |
| 3.6. | GIZAKIEN OSASUNAREN ETA OSOTASUNAREN AURKAKO JOKABIDEAK BAZTERTZE ETA SALATZE, PERTSONONDU INTASUNA HANDITZENDUENA..... | 9 |
| 3.7. | LANGILEEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZE, XXXXXN PERTSONEK DUTELAKO LEHENTASUNA..... | 10 |
| 4. | PRINTZIO ZUZENDARIAK ETA JOKABIDE DEBEKATUAK LEHIA BABESTEKO ARAUDIAREN ESPARRUAN | 11 |
| 4.1. | ENPRESEN ARTEKO AKORDIOAK EDO BESTELAKO JARDUKETAK, LEHIA ASKEA MURRIZTEKO XEDEA EDO ERAGINADUTENAK | 11 |
| 4.2. | NAGUSIKERIA | 11 |
| 4.3. | INTERES PUBLIKOARI ERAGITEN DIOTEN LEHIA DESLEIALEKOEKINTZAK | 12 |
| 4.4. | ARAU-HAUSTEAK KONTZENTRAZIO EKONOMIKOAK KONTROLATZEKO ARLOAN..... | 12 |
| 4.5. | LEHIATZEKO ESKUBIDERAKOON ARTUGABEKO BESTE JOKABIDE BATZUK..... | 12 |
| 5. | INDARREAN SARTZE, INDARRALDIA, KOMUNIKAZIOA ETA BERRIKUSPENA..... | 13 |

1. SARRERA

Klemarken eta haren partaidetza-sozietateen (aurrerantzean, XXXXXX edo Erakundea) Kode Etikoaren markoan, eta ezarrituen Compliancea Kudeatzeko Sistema Integralaren parte gisa, hainbat printzipiojasokodira jarraian, XXXXXX osatu eta harekin harremanak dituzten pertsonen jardun profesionala arautu behar dutenak, arauz kanpoko jokabideak, delituak edo eskumeneko arau-haustek, pertsona fisikoei eta Klemarki erantzukizuna dakarzkienak, saihesteko.

Ondorioz, printzipioen katalogo honen bidez jarraian zehaztuko diren jokabideak debekatzen dira.

2. IRISMENA

Printzipio arautzaile hauek aplikatuko zaizkie Erakundearen jardura guztiei eta derrigorrez bete beharko dituzte Klemarken kide guztiek, erakundearen barruan betetzen duten kargua edo lanpostua, harreman mota edo kokapen geografikoa alde batera utzita.

Bestalde, luzatuko zaie hirugarrenekin, negozio-kideekin, erakundearen izenean jardun edo ekintzakegiten dituzten pertsonekin, atzerriko eskumendeko enprekin eta partaidetza-sozietate kontrolatuekin edo kontrolatu gabekoekin mantentzen diren harremanei.

Printzipio horiek ezagutu eta beren jardura profesionalaren esparruan aplikatu beharko dituzte guztiek.

3. PRINTZIPIO ARAUTZAILEAK ETA JOKABIDE DEBEKATUAK ARLO PENALEAN ETA EROSKERIAREN AURKAKOAN

3.1. Ustelkeria saihestea enpresa lehiakorragoa eta jasangarriagoa izateko, gizarte bidezkoagoa sortzen laguntzeko ez ezik

Horrekin lotuta, debekatuta daude honako xede hauek dituzten jokamoldeak:

- ❖ Transakzio ekonomiko batean, Klemarki bidegabe laguntze aldera, kontraprestazio gisa justifikaziorik gabe edo zer abantaila edo onura ematea beste entitate edo enpresa bateko agente komertzialei, administratzaileei, zuzendari edo enplegatuei.

- ❖ Transakzio ekonomiko batean, kontraprestazio gisa beste enpresa edo entitate bati eskatzea justifikatugabeko edo zer abantaila edo onura, edo hark eskainita onartzea, entitate horri bidegabe laguntzeko eta beste enpresa batzuei kaltetzeko.
- ❖ Dohain edo ordainsaribat eskaintzea edo ematea edozein agintariedo funtzionario publikoribere funtzio publikoak bete ditzan edo bete ez ditzan, kontratubat mantentzeko edo Klemarken alde etekin ateratzeko.
- ❖ Edozer motako dohain edo ordainsari bat jasotzeko agintari edo funtzionario publiko batek eginiko eskaerari erantzutea, hark bere funtzio publikoak bete ditzan edo ez ditzan edo Klemarken alde etekin ateratzeko.
- ❖ Funtzionario publiko edo agintari batekin harreman pertsonala izanez gero, haren gain eragina izatea norberarentzako edo Klemarkentzako ebazpen onuragarria eskuratzeko.
- ❖ Promes eginiko dohainak edo bestelako ordainsariak onartzea edo eskatzea funtzionario publiko bati eragiteko, eta, horrela, aldeko ebazpen bat eskuratzeko, norberarentzako edo enpresarentzako zuzeneko edo zeharkako etekin ekonomikoa dakarrena.
- ❖ Funtseko ondasun publikoak desegoki kudeatzea edo administratzea.

3.2. Ezezkoa iruzurrarieta erakunde kriminalei jokoaren arau garbiak eta etikoak ziurtatzeko

Printzipio horren arabera, jokamolde hauek debekatuta daude:

- ❖ Hirugarren pertsoneri iruzuregitea, ondarea emateko ekintza bat egin dezaten (dirua eman, ordainketa bat egin, etab.) beren kalterako edo hirugarren baten kalterako, Klemarkentzako onura edo etekina lortze aldera.
- ❖ Ondarea ematea edo enpresa bati obligazioak eragiten dizkion edo zer ekintza egitea, enpresaren ondasunak murrizteko edo ezkutatzeko joera duena, erantzukizun zibilak ez ordaintzeko xedez, edo enpresako hartzekodunen aurkako enbargo bat zailtzeko edo galarazteko xedez.
- ❖ Enpresaren kontabilitatean irregulartasunak egitea, kontabilitatea ez egitea edo kontabilitate bikoitza egitea, eta enpresak derrigorrezgorde behar duen dokumentazioa ezkutatzeko edo suntsitzea, ondare-kaudimengabeziako egoeran egonik edo lasteregongo bada.

- ❖ Enpresaren ondasunak, lehiaketa–prozesu batean barne hartu direnak, ezkutatzea edo suntsitzea; diru–transferentziak edo ondare–aktiboenak egitea, edo zordunaren ondare–egoerarekin proportzioagordetzen ezduten zorrak hartzea; edo zerbitzuak saldu edo egitea eskuratze–edo produkzio–kostua baino prezio txikiagoarekin, ondare–kaudimengabeziako egoeran egoniko edo lasteregongo bada.
- ❖ Opariak edo promesak eskatzea lehiaketa edo enkante publiko batean parte ez hartzeko xedez, bai eta edozer azpikeria edo mehatxu erabiltzea ere beste alderdi batek hartan parte har ezdezan. Aldeen arteko lehiaketa barne hartzen da ere bai, erremate–prezioa aldatzeko xedez eta adjudikaziodunaren porrota edo iruzurrez kobertan behera uztea ere bai.
- ❖ Produktuen edo zerbitzuen eskaintzak edo publizitate engainagarria egitea, beren ezaugarriei buruzko alegazio faltsuen edo zalantzazko adierazpenen bidez.
- ❖ Aparatu automatikoen bidez kalkulatu diren kostua edo prezioa dituzten produktuen edo zerbitzuen truke prezio horiek baino kantitate handiagoko fakturazioa egitea, aparatuak aldatuz edo manipulatu.
- ❖ Ondasunak eskuratzeko, edukitzeko, erabiltzeko, bihurtzeko edo eskualdatzeko eragiketetan edo transakzioetan parte hartzea jakinda horien jatorria delituzko ekintza bat dela, legez kanpoko jatorri hori estaltzeko, edo jarduketaren lege–ondorioak ezkutatzea.
- ❖ Datuak faltsutzea edo simulatzea fakturretan, ordainagiritan, kontratuetan edo hirugarren pertsoneri eragiten dieten Klemarken beste edozer dokumentutan.
- ❖ Alderdi politiko, federazio, batasun edo hautesleen elkarte bati zuzendutako dohaintzak edo ekarpenak jasotzea edo egitea alderdi politikoaren finantzaketari buruzko araudian ezarritakoa hautsiz. Legez kanpoko elkarte bat edo erakunde kriminaleko terroristabat sustatzea, osatzea, kudeatzea edo zuzentzea, edozer bitartekoren bidez parte hartzeko edo laguntzeko edozer ekintza barne, esaterako, finantzaketa.
- ❖ Debekatutako salgaiak edo kontrabandoko salgaiak inportatzea, esportatzea, merkaturatzea, edukitzea, ezkutatzea, lapurtzea eta mugitzea araudi arautzaile zehatzaren eta aduanako araubidearen behaketarik gabe.

3.3. Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak saihestea diru–kutxapublikoa eta oinarrizko zerbitzuak mantentzeko laguntzeko

Printzipio hori betetzeko, debekatuta daude honako xede hauek dituzten jokamoldeak:

- ❖ Tributuak, atxikitako kantitateak edo atxikibehar zirenak edo konturako sarrerak ez ordaintzea Ogasun Publikoari.
- ❖ Ogasun Publikoaren aldetik itzulpenak edo zerga-onurak jasotzea bidegabe.
- ❖ Gizarte Segurantzaren kuotak ez ordaintzea edo horien itzulpena behar gabe jasotzea, edo kenkariak bidegabe izatea.
- ❖ Gizarte Segurantzaren prestazioak eskuratzea norberarentzako edo enpresarentzako, edo horien luzapena lortzea, jakinarazibeharreko egitateak simulatuz edo ezkutatuz.
- ❖ Administrazio publikoen diru-laguntzak edo laguntzak jasotzeko eskatzen diren baldintzak faltsutzea edo esleipena galarazi zutenak ezkutatzea.
- ❖ Kontabilitatea, zerga-liburuak edo erregistroak egiteko betekizuna ez betetzea edo kontabilitate ezberdinak izatea jarduera edo ekitaldi ekonomiko baterako.
- ❖ Derrigorrezko liburuetan negozioak, eragiketak edo transakzio ekonomikoak ez idaztea, edo zifra faltsuak idaztea edo, oro har, kontabilitateko gezurrezko idazpenak egitea.
- ❖ Ikuskatzaileen edo gainbegiratze-organoen eta erakunde arautzaileen jarduera oztopatzea.

3.4. Teknologia berriak ongi erabiltzea, jabetza intelektuala eta industrial, kontsumitzaileak eta gizabanakoen intimitatea errespetatuz, berrikuntzarekin eta garapenarekin dugun konpromisoa nabarmentzen duena

Teknologia berriak egoki eta errespetuz erabiltzeko, debekatuta daude jokamolde hauek:

- ❖ Beste pertsona baten intimitatea urratzea edo ezkutuko komunikazio pertsonalez jabetuz, erakutsiz, aurkituz edo bidean atzemanaz; gutunak, mezu elektronikoak edo bestelako dokumentu edo efektu pertsonalak ikusiz, pertsonaren baimenik gabe.
- ❖ Fitxategietan edo euskarri informatikoetan, elektronikoetan, telematikoetan edo bestelako fitxategi mota edo erregistro publiko edo pribatuan erregistratuta dauden datu pertsonal edo familiarrez baimenik gabe jabetzea, erabiltzea edo aldatzea. Pertsonaren baimenik gabe irudiak edo

grabaketak lagatzea, hedatzea edo argitzeraematea barne.

- ❖ Segurtasun–neurri horiek urratzea informazio–sistemabaten zati batera edo osotasunera legez kanpo sartzeko aukera ematen duen programa bat eraginez, sortuz, erabiliz edo eskuratuz.
- ❖ Datu elektronikoak baimenik gabe ezabatzea, suntsitzea, narriatzea, baliogabetzea edo desegitea, eta horrekin batera euskarri–sistema informatikoa aldatzea.
- ❖ Edozer baliabideren bidez, obren (literatura–sormenak, sormen artistikoak, hezkuntzakoak edo zientifikoak) edo produktuen (patenteak/markak) jabetza intelektuala eta industrialaren eskubideak urratzea, obra horiek erreproduzitzen, kopiatuz edo plagiaturik edo Espainiako lurraldean fabrikaturik, inportaturik, edukiz, erabiliz edo baimenik gabe sartuz eta banaturik titularraren baimenik gabe eta harkerregistroa ezagutu gabe.
- ❖ Softwarea kopiatzea (programak, sistema eragileak, etab.), Internetetik fitxategiak deskargatzea baimenik edo lizentziarik gabe edo webean argitaratzea legez kanpoko deskargak egiteko web–estekak.
- ❖ Enpresa–sekretu bat aditzera ematea, hedatzea, hirugarrenei lagatzea edo eskuratzea hura gordetzeko lege–edo kontratu–betekizuna izanik, informazioa legezkoa edo legez kanpoko denik jakinda edo ez jakinda.

3.5. Ingurumena eta ingurua babestea eta kontserbatzea aukerez betetako etorkizuna ziurtatzeko

Printzipio hori betetzeko, debekatuta daude honako xede hauek dituzten jokamoldeak:

- ❖ Ingurumena kaltetu ahal duten (atmosfera, zoru edo zorupea, lurko edo lur azpiko ura, itsasoa edo itsas zabala) jarduerak egitea, zeharka edo zuzenean, hala nola, emisioak, isuriak, zaratak, gordailuak eta abar; edo pertsonen osotasunerako eta osasunerako arriskularri direnak.
- ❖ Hondakinak jasotzea, garraiatzea, eraldatzea, desegitea edo aprobetxatzea, edo jarduera horiek egoki ez kontrolatzea edo gainbegiratzea, eta, horien ondorioz, ingurumena kaltetzea edo pertsonen heriotza edo lesio larriak eragitea. Horren harira, aplikaziokoa izango da substantzia lehergarriak, errekorrak edo korrosiboak, toxikoak eta itogarriak maneiatzeko eta merkaturatzeko, hondamen handia sortuzketenak eta ezarritako arauen kontra egon litezkeenak.
- ❖ Airearen, uraren, zoruaren, animalien, landareen edo pertsonen kalitatea kaltetu ahal duten jarduera arriskutsuak egiten diren instalazioak ustiatzea.

- ❖ Legearen edo administrazioaren arabera, paisaia-balioa, balio ekologikoa, artistikoa, historikoa edo kulturala jaso duten zoruak, eta, hortaz, babes berezikotzat jo direnak sustatzea, eraikitzea, urbanizatzea edo eraikuntzarik egitea baimenikgabe.

3.6. Gizakien osasunaren eta osotasunaren aurkako jokabideak baztertzea eta salatzea, pertsonon duintasuna handitzen duena

Printzipio horren eraginpean, debekatuta daude gizakien salerosketa; organoen legez kanpoko salerosketa; prostituzioa; sexu-esplotazioa eta adingabeen ustelkeria; osasun publikoaren kalterako ekintzak eta drogen salerosketa.

- ❖ Aireportuetan, portuetan eta mugako eremuetan pertsonen sarrera, igarotzea, lekualdatzea, trukea edo harrera erraztea legez kanpoko jardueretarako pertsona horiek (nazionalak edo atzerritarrak, bereziki, kolektibo kalteberak) indarkeria, nagusikeria, larderia edo iruzurrak jasan dituztenean ustiapen-xedeekin.
- ❖ Giza organoen salerosketari laguntzen dion edo zer jokabide sustatzea, erraztea, bitarteko izatea, ateratzea, gordetzea eta biltzea, eta publizitate-egintzak eta emaileak, hartzaileak eta kirurgialariak erakartzea.
- ❖ Haurren pornografia edo talde kalteberetako edo sentiberetako pertsonak erabili dituzten pornografia erakartzen, ekoizten, finantzatzen, saltzen, hedatzen, banatzen edo erakusten laguntzea; eta material mota horretara sartze edo zer baliabideren bidez.
- ❖ Gorrotozko, etsaitasunezko, diskriminaziozko edo indarkeriazko jokabiderik edo ekintzarik gaitratzea, hedatzea, sustatzea edo bultzatzea talde baten aurka, gizartearen edo pertsonen eta ondasun babestuen aurkako genozidioak edo krimenak egitea gatazka armatuen kasuan. Horrez gain, pertsonen duintasuna zapaltzea ekintza umiliagarrien, mespretxagarrien edo ospea galarazten dutenen bidez, honako arrazoi hauek direla medio: arrazistak, antisemitak edo ideologiakoak, erlijioakoak edo etnia, arraza eta naziokoak, jatorri nazionalakoak, generokoak edo sexu-nortasunekoak, gaixotasunekoak, aniztasun funtzionalakoak edo kalteberatasun-egoerakoak.
- ❖ Osasunerako kaltegarriak diren substantziak, hondamena sor dezaketen produktu kimikoak, sendagaiak edo osasun-produktuak, osaerari, kaltegarritasunari, usteltzeari, ez erabiltzeari edo desinfektatzeari buruzko araudi zehatza betetzen ez duten elikagaiak edo edariak -airearen eta ur edangarrien tratamendua barne- eratzea, maneiatzea, merkaturatzea eta hornitzea.

- ❖ Droga estupefazianteak edo substantziapsikotropikoaksalerostea, haztea, prestatzea, edukitzea edo horien kontsumoari laguntzea. Arreta berezia emango zaie medikuei, langile–sozialei, irakasleei eta hezitzaileei, beren kargua, lanbidea edo lana betetzean.

3.7. Langileen eskubideak errespetatzea, Klemarken pertsonen dutelako lehentasuna

Jokabide hauek debekatuta daude:

- ❖ Iruzur eginez edo behar–egoera batetik probetxu ateraz, langileei lan–baldintzak edo segurtasun sozialeko baldintzak inposatzea, legezko lan–xedapenen, hitzarmen kolektiboen edo kontratu indibidualaren bidez aitortu zaizkien eskubideei kalte egiten dietenak.
- ❖ Lan–baimenik gabeko atzerrikolangileei edo adingabeei lana ematea.
- ❖ Askatasun sindikala edo greba egitekoa galaraztea edo mugatzea engainu bidez edo behar–egoera batetik probetxu ateraz, edo beste pertsonen derrigortzeagreba bati hasiera edo jarraitasuna ematera.
- ❖ Langileei ez ematea beren lana segurtasun eta higieniko neurrikin egiteko behar dituzten baliabideak, eta, ondorioz, beren bizitza, osasuna edo osotasun fisikoa arriskuan jartzea.
- ❖ Pertsona bat diskriminatzea honako arrazoi hauek direla medio: ideologia, erlijioa, sinesmenak, arraza, etnia nazioa, sexua, orientazio edo nortasun sexuala edo generokoa, aporofobia gizarte– edo familia–bazterketako egoera, gaixotasuna edo aniztasun funtzionala duten pertsonak, langileen lege–edo sindikatu–ordezkariizatea, enpresako beste langile batzuekin duten ahaidetasuna, Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialetan hitz egitea eta, errekerimendu edo zehapenen aurrean, berdintasun–egoera ez leheneratzea.

4. PRINTZIPIO ZUZENDARIAK ETA JOKABIDE DEBEKATUAK LEHIA BABESTEKO ARAUDIAREN ESPARRUAN.

4.1. Enpresen arteko akordioak edo bestelako jarduketak, lehia askea murrizteko xedea edo eragina dutenak

Honako jokabide hauek debekatzen ditulehia askea babesteko araudiak:

- ❖ Enpresen artean itundutako akordioetan edo jardunetan parte hartzea, zuzenean edo zeharka, honako kontuak dakartzatenetan: prezioak edo beste baldintza komertzialak finkatzea, merkatuak banatzea, bezeroak edo hornikuntza, lizitazio publikoak banatzeko edo faltsutzeako akordioak barne.
- ❖ Enpresako aldi baterako itunak osatzea lehiatzaileekin, proiektu jakin bat egiteko edo lizitazio jakin batean lehiatzeko objektiboki beharrezkoak ez direnak.
- ❖ Gomendio kolektibo bat garatzea –kide zaren sektore–elkartebatek egina–Klemarken politika komertzialarekin lotutako edo zer alderdiri buruz.
- ❖ Informazio komertziala trukitzea lehiatzaileekin edo zer baliabideren bidez (mezu elektronikoak, bat–bateko mezuak, telefonozko edo aurrez aurreko elkarrizketak, etab.). Informazio horiek izango dira enpresa batek normalean erakundekoak ez diren pertsonekin partekatuko ez lituzketenak, eta, zehazki, hartzailearen presak merkatuan duen jokabidea ezagutzeko aukera ematen dion informazioa.
- ❖ Ekoizpen–katearen maila ezberdinetan jarduten duten enpresen arteko akordioak (banaketako eta hornidurako harremanak), lehiarako murriztapen bereziki larriak dituztenak, adibidez, birsalmentako prezioak finkatzea, salmenta pasiboen murriztapenak edo lineako salmenta debekatzea.

4.2. Nagusikeria

Lehia babesteko araudiak merkatuko nagusikeria debekatzen du.

Hala, enpresa bat merkatu jakin batean nagusi denean, ez du egin behar haren nagusitasuna baliatzeko ekintzarik, hala nola prezio harrapakariak edo gehiegizkoak finkatzea, hirugarrenekin kontratuak ez egitea justifikaziorik gabe edo prezio edo baldintza komertzial baztertzailerik aplikatzea.

4.3. Interes publikoari eragiten dioten lehia desleialeko ekintzak

Honako jokabide hauek debekatzen ditu lehia askea babesteko araudia:

- ❖ Boikot-ekintzak (enpresa bat merkatutik kendu nahia), lehiatzaile baten prestazioak ez kontratatzea edo produktuak ez eskuratzea sustatzeko kanpaina baten bidez.
- ❖ Mendekotasun ekonomikoko egoera batez probetxu ateratzea (adibidez, Klemarken bezero bakarria duen hornitzailebat) baldintza hobekak lortzeko.
- ❖ Lehiatzaile baten kontratupeko kidea eragitea (bezeroa edo hornitzailea) kontratua hautsi dezan, lehiatzailea kentzeko edo kaltetzeko asmoz.
- ❖ Lehiatzaileei buruzko informazio faltsuak argitaratzea edo hedatzea (zurrumurrufaltsuak).
- ❖ Lehiatzaileen produktuak edo zerbitzuak publikoki iraintzea.

4.4. Arau-haustek kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko arloan

Hauek dira kontzentrazioak kontrolatzeko arloko arau-haustek, eta, hortaz, Klemarken baitan debekatuta daude jokabide horiek:

- ❖ Nazio-mailan eta Europa-mailan ezarritako jakinarazpen-atalaseak betetzen dituen kontzentrazio-eragiketa¹ bat gauzatzea eskumena duen agintaritzari jakinarazigabe.
- ❖ Eskuratutako sozietatea kudeatzean edo erabaki estrategikoak hartzean esku-hartzea, edo kontzentrazio-eragiketabeste edonola egitea eskumena duen agintaritzak derrigorrez kobaimena eman baino lehen.
- ❖ Konpromisoen eraginpeko kontzentrazio-eragiketa bat baimentzeko ebazpenean ezarritako konpromisoak urratzea.

4.5. Lehiatzeko eskubiderako onartu gabeko beste jokabide batzuk

Lehia babesteko araudiak debekatzen du, halaber:

- ❖ Eskumena duen agintaritzaren ikuskatze-lana oztopatzea, hauen bidez: (i) agintaritzak eskatutako dokumentuak edo informazioa ez aurkeztea edo osorikez aurkeztea edo desegoki edo modu engainagarrian aurkeztea; eta (ii) agintaritzak etxe-ikuskapen batean zehar aplikatutako zigiluak haustea.

¹ Egoera hauek, besteak beste: sozietateak eskuratzea, negozio-bolumen jakina esleitu ahal zaien aktiboak, funtzio osoak garatzen dituzten partaidetza-enpresak sortzea.

- ❖ Informazio faltsua edo zehaztugabea ematea eskumena duen agintaritzak egindako errekerimendu bati erantzuteko.

5. INDARREAN SARTZEA, INDARRALDIA, KOMUNIKAZIOA ETA BERRIKUSPENA

Dokumentu hau indarrean sartukoda onartu, aldatu edo eguneratzen den egun berean.

Argitaratu eta hedatuko da, ezagutzera emate aldera. Gainera, korporazioaren webean eskuragarrieta kontsultagarriegongo da.

Klemarkek ohikoan berrikusiko du edukia, dokumentu-informazioko sisteman ezarritakomaiztasunarekin. Ezohikoan, hura egokitze edo berehala eguneratzeko legezko, antolamenduko edo beste nolakotasun bateko baldintza garrantzitsuak gertatzen direnean.